

A- Pilotari bati buruzko aurkezpen egin ezazu.**1- Ikerketak egin itzazu:****Zure galderak idatz, hitz-gakoak azpimarratuz:**

Zer da pilota? Zer da pilotaren historia? Non jokatzen da, zein tokitan? Zer material erabiltzen da? Zein dira espezialitateak? Zein dira arauak? Zer da pilota jokoaren hiztegia? Zein dira txapelketa motak? Zein dira pilotari ezagunak?...

Dokumentuak xerka itzazu Interneten edo liburutegian.

Dokumentuak hauta.

Dokumentuak konpara.

Galdeen erantzunak idatz.

Irudiak hauta, inprima edo fotokopia itzazu (argazki, marrazki, eskema, karta...)

2- Aurkezpena antola ezazu:

Euskarria hauta: afixa handi bat, orrialdeak ordenagailuan...

Izenburu eta azpi-izenburuak hauta.

**Orrialdeak eta afixa antola ezazu:**

- Izenburu eta azpi-tituluak idatz.
- Koadroak edo guneak marraz.
- Irudiak eman ilustratzeko.
- Paragrafo bakoitzaren testua idatz.
- Irudien legendak idatz.

3- Aurkezpenaren egitea ikasgelakoei:

- Lehenik ahozko aurkezpenaren erraten **treba zaitez**.

- Aurkezpen egunean, **boz azkar** eta pausatuaz mintza zaitez, kideei ontsa so egin.

- Testuen eta irudien aurkezteko mementoak **aldizkatu** itzazu.

- Kideen galderei **erantzun** iezaiezu.

B- Pilotari famatu eta ospetsu baten aurkezpena egin ezazu.

Ondoko pilotari ospetsu bati buruzko aurkezpena egin ezazu:

-Txikito de Kanbo (Joseph Apesteguy), - Jean Urruty, Michel Etcheverry,- Panpi Laduche,- Yves Sallaberruy (Xala),- Waltary Agusti, - Argia Olçomendy,- Maite haran, - Nicole Seilhan, -Maite Ruiz de Larramendi, -Patri Espinar,...

Galderak: Noiz, non sortua? Noiz hasi zen pilotan? Zer espezialitatean ari da/zen? Non ari da/zen, (trinket, plaza laxoan...), Zer txapelketa irabazi du/zuen? Zer ezaugarri berezi du/zuen?...

**C-Gisa berean "Artea eta pilota" gaiari buruzko aurkezpena egin dezakezu.**

Horretarako Euskal Erakustokiko obra zenbaitetan oinarritzen ahal zinateke: Mayi Darizkuren Verchere, Marie Garay, Ramiro Arrue,...